




AINHOA

Atxulegi



Distantzia 19,3 km	Desnibela 850 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulua	Zedarriak Hiruki horiak - Mendiko bizikleta
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

A63 autobidean, 5. jalgebidea hartu (hego Baiona) eta D932 segitu Uztaritze eta Kanbora buruz. 15 km urrunago, Kanboko sarbidea segitu, eta eskuinera joan Ezpeletara buruz (D918). Ezpeletako jalgebidea eta 800 m urrunago, D20 bidearekiko bidegurutzean, ezker hartu Ainhoa aldera segitzeko. Pinodieta lepoa iragan eta Ainhoan sartu (aparkalekua pilota plazatik hurbil).

GPS datuak: **UTM : 621733 - 4796023 Lat/Long : 43.30718 - 1.49901**

Ainhoa eta Ezpeletako gainaldeetan, mendiko bizikletendako ibilbide honek, hasieran kirol motakoa, all-mountain motako mendiko bizikletendako ibilbide moder-noaren osagai guziak dauka: artzain-bideetan igoaldi ederrak, bizikleta gutitan eskuz eraman behar, Gorospil mendian ahaztezinako bidexka jostagarri eta panoramikoak: esperientzia handiko mendiko bizikletariendako gozaldi bikaina.



1. ZATIA > Ainhoako pilota plazatik Arantzetako kaperara

UTM: 621733 - 4796023

Ainhoako pilota plazatik, karrika nagusi osoa igo, Herriko Etxearen aitzinetik pasatuz. Puntan, bihurgunetik ateratzean, ezkerrera joan norabide debekatutako karrikan (Garziako Inta). Kaperara ttipiaren ondotik, eskuinera joan "kaperara" geziz seinalatutako karrika igotzeko (Kaperako Bidea). Lehen "pareta" honen tontorrean, T itxurako bidegurutzean, eskuineko bidea segitu 100 m-tan, eta gero, ezkerrean kaperara igotzen den bide harriztatua. Igoaldi bihurgunetsua zaila da. Gurutze zuri baten oinean (2,05 km), mendiko bizikletentzat seinalatutako bidexka eskuin utzi (GTPB) eta zuzen segitu iturri batetik (Ama Birjina) hurbil iragaten den bidean.

2. ZATIA > Arantzetako kaperatik Gainekoborda lepora


UTM: 623100 - 4795635

Arantzetako kaperaren ondoan (2,45 km), merezi duzun atsenden itzaltsua hartu eta gero, hilarri eta gurutzeez gainetik ibili, eta eskuin aldean bi bidexka utzi, zuzen segitzeko bidexka belartsuan. Ainhoa ikusmenean duen bide lau batek du segida hartzen. Y gunean (3,25 km), eskuineko adarra hautatu eta 100 m urrunago, bidexka utzi, eskuinean den belarrean zut-zut igotzeko (bultzaldi). Harri mokorrean, bidexka ederra iratzeen artetik doa eta arditegi batetik hurbil-hurbil pasatzen da: eskuineko bidean igotzen segitu. Pasarte zut-zut baten ondotik (Larrarte iturria), eskuineko bide harriztatua segitu. Bihurgune bat marrazten du eta Hirukurutzeta leporantz luzaz zeharkatzen du (5km). Bide nagusia Atxulegiko hego-isurialdetik iragaten da (igoaldi eztea), eta luzaz jaisten da hurrengo leporantz.

3. ZATIA > Gainekoborda lepotik Gorospil lepora

UTM: 625895 - 4795213

Gainekoborda lepoko bost bideetatik (6,7 km), parean den erdiko bidea hautatu (lurrezkoa eta laua). Aterpe irekia oihanean, ezker. Bidea beste lepo batera heltzen da (7,1 km), eta igoaldi garbi eta zorrotza hasten du. Zuharreta lepoan (8,2 km), bideak utzi eskuin igotzeko, hilarri baten gainean, iratze arteko bide batetik (bizikleta eskuz eraman behar). Bidexka, urratsez urrats, tontor-lerro batera hurbiltzen da. Lehen konkorraren ondotik, Bizkailuzeko gain belartsuan ibil daiteke, arrunt hegoalderantz, Larrun



eta Artzamendi ditugularik talaia gisa. Hiru gainaldeetatik iragan eta lepo baterantz jaitsi, 76. mugarrira gurutzatuz.

4. ZATIA > Gorospil lepotik Arotzen auzora

UTM: 626052 - 4791797

Gorospil lepoan (10,65 km), bizikletaz ibiltzeko moduko bidea zeharkatu, arrunt eskuinera hartu iparralderantz itzultzen den bidexka lau batean. Lepo belartsu batera hurbiltzerakoan (pago bakartia), ezker segitu konkorr baten bazterretik doan beste bidexka batean, Haizagerriko gaina aurkitu arte. Handik, jaitsiera zuzen gogoangarri bat hasten da. Arreta eskatzen duten zati arrokatsuen ondotik, bidexka maldatsua eta belartsua bilakatzen da, eta berriro harritsua, igo behar diren konkorr batzuekin (bizikleta bakarreko bidexka iratzeetan). Beherean (13,7 km), borda baten azpian den pentzearen parean, bidea zeharkatu eta eskuinera jaisten den bidexka hartu; lur gorriko bide batera heltzen da, ezker segitu behar dena.

5. ZATIA > Arotzen auzotik D20 errepidera

UTM: 623398 - 4793235

Arotzen auzoko bidean (14,2 km), 80 m jaitsi eskuinaldera eta ezkerrera joan lehen bidean (biltegia). Laster bidexka tekniko batek hartzen du segida (sustrai lerrakorrak eguraldi hezea delarik), oihanean murgiltzen dena. Beherean, zubixka eta gero, errepidea ezkerrean hartu 1,4 km-tan, Lapitxuri muga-errekaren bazterretik. Kanadar pasabidearen ondotik (16,1 km), ezkerreko bideari kasurik ez egin eta zuzen segitu hein batean mundrunatua den bidean. Harrobiaren aldaparen tontorrean, zuzen jaitsi errepidean.

6. ZATIA > D20 errepidetik Ainhoara

UTM: 621886 - 4794558

Dantxarinea eta Ainhoa lotzen dituen D20 errepide bazterrean iritsi eta (17,35 km), errepidearen bazterretik zuhurki ibili eskuinaldetik Ainhoaraino. Arbonako patarratik iragaten da eta Ainhoako sarrerara laster heltzen. Karrika nagusiak pilota plazara eramaten zaitu.

INTERESGUNEAK

❖ Arantzetako kaperara (2,45 km)

UTM: 623100 - 4795635
Bistaleku idilikoan kokaturik, Arantzetako kaperara, Andre Dena Mariari eskainia, artzain bati Ama Birjina agertu zitzaion leku batean eraikia izan zen, elorri zuri sasi baten erdi-erdian. Gurutze handiz eta euskal hilarriz inguratua da.

❖ Betizuak (7,1 km)

Xoldoko gaina mendiarekin (Biriatu gainean), Mondarrain eta Atxulegiko eskualde hori betizuen azken gaztelua izaten da, euskal mendietan askatasun osoan ibiltzen diren behi basatiak. Abiadura moteldu behi gorri horiek gurutzatzen badituzu, ez dira mendiko bizikletak gurutzatzeari ohituak!

❖ Gorospil lepoko mugarrira (10,6 km)

UTM: 626100 - 4791869
Lepoa baino doi bat aitzinago, 76 zk. mugarririk Espainiako lurraldeko sartzea seinalatzen du. Harri zabal baten ondoan kokatua da, iruinari zahar bat etzanik, non ondoko idazkun horiek grabatuak diren: "Y" Itsasu adierazteko, "Ez" Ezpeleta adierazteko eta "BB" Baztan Bidasoa (Baztango ibarra) adierazteko.

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Ainhoa, norabide debekatutako karrika zati laburra, eskuin-eskuin egon

UTM: 621797 - 4795771

- Haizagerriko tontor-lerroan, jaitsiera teknikoaren hasiera
UTM: 625729 - 4792319

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurrak loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Abiapuntua: ur gunea, komunak:
UTM: 621733 - 4796023

- Ainhoa, Arantzetako kaperara: ur gunea eta kanpoan bazkaltzeko mahaiaik (2,5 km)
UTM: 623100 - 4795635

- Gainekobordako etxola (Ezpeletako herria), aterpea eta ur gunea (6,75 km)
UTM: 625977 - 4795169

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzat duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINNE, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.